

PRENTSA OHARRA: 2026.02.27

Etxepare Euskal Institutuak BASQUE. Creativity & Culture abiarazi du, euskal kulturaren nazioarteko proiektzioa indartzeko argitalpena

- BASQUE. Creativity & Culture kulturaren bidez Euskadi nazioartean kokatzeko estrategiaren baitan txertatzen den urteroko argitalpena izango da

- Nazioarteko publikoari zuzenduta dagoen aldizkari hau azoka profesionaletan, sare akademikoetan, Euskadiren atzerriko ordezkartzetan, euskal diasporan eta Institutuak Euskal Herritik kanpo bultzatzen dituen nazioarteko ekimenetan zabalduko da

Donostia, 2026ko otsailaren 27a- Etxepare Euskal Institutuak BASQUE. Creativity & Culture plazaratu du, nazioartean euskal kulturaren kontakizun garaikidea eraikitzeko tresna gisa. Urteroko argitalpena izateko bokazioa du, eta Institutuaren misioaren baitan sortu da: euskara, euskal kultura eta sorkuntza munduan zabaltzea. Nazioarteko testuinguru kultural, artistiko eta akademikoetan euskal kulturaren presentzia eta aitortza indartzeko Institutuak sustatzen dituen beste ekimenei batzen zaie hau.

BASQUE. Creativity & Culture argitalpenaren bidez, Etxeparek beste urrats bat eman du kultura Euskadiren nazioarteko proiektzioarako aktibo estrategiko gisa sendotzeko. Aldizkaria elebiduna da (euskara-ingeles), eta nortasun propioa eta munduarekin elkarriketan aritzeko borondatea uztartzen ditu. Bertsio digitalean eskuragarri egongo da Institutuaren webgunean eta basqueculture.eus plataforman. Horrez gain, paperezko tirada mugatu bat ere izango du, nazioarteko azoka profesionaletan, euskal

ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateetan, Euskadiren atzerriko ordezkartzetan, euskal diasporan eta Institutuak bultzatutako nazioarteko ekimenetan zabalatzeko.

Estrategia zabalago baten parte

Argitalpen berria euskal kultura eta sorkuntza nazioartekotzeko BASQUE. marka-ekosisteman kokatzen da. Esparru horretan kultur sektoreetako elkarte profesional nagusiek, Eusko Jaurlaritzak eta Etxepare Euskal Institutuak dihardute lankidetzan. Aldizkariak euskal kultura garaikideari buruzko begirada zaindua eta testuinguruan jarria eskaini nahi die kultura, sorkuntza eta akademiaren alorretako profesionalei eta, oro har, nazioarteko publikoari.

Proiektu zehatzen berri emateaz haratago, BASQUE. Creativity & Culture-k Euskadi Europako kultur-eragile garaikide gisa kokatuko duen kontakizuna eraikitzen laguntzea du xede: nortasun propioa eta hizkuntza berezia dituen herrialdea, eta era berean nazioarteko elkarrizketa zein lankidetzarako borondatea duena.

Irene Larraza Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren hitzetan, “kultura nazioarteko proiektiorako dugun tresna nagusietako bat da. BASQUE. Creativity & Culture-rekin gure sorkuntza garaikidearen bizitasuna eta aniztasuna erakutsiko duen leiho bat ireki nahi dugu, eta, aldi berean, gure kokapena indartu mundu mailako kultur- elkarrizketetan”.

Sorkuntza garaikidea du ardatz

Lehen zenbakiak euskal kulturaren aniztasuna eta bizitasuna islatzen dituzten elkarrizketak eta profilak biltzen ditu. Ale honek tradizioaren eta berrikuntzaren arteko elkarrizketa aztertzen du Zetak fenomenoaren bidez; belaunaldi berriak ordezkatzeko dituzten hainbat artista plastiko aurkeztzen ditu; Gala Knörr artistarekin elkarrizketa jasotzen du diaspora eta identitateari buruz; eta Etxepare Euskal Institutuak bultzatutako euskal ikasketen sareari buruzko erreportajea dakar, besteak beste.

Eduki horien bidez, aldizkariak euskal kultura hurbiltzeko aukera eskaintzen du, begirada garaikide batetik, sortzaileak erdigunean jarritz, eta tokikoa eta globala konektatuz.

BASQUE. Creativity & Culture-k kultur diplomaziarako tresna egonkor eta erabilgarri gisa finkatzea du helburu, Euskadik herrialde sortzaile, dinamiko eta kulturalki konektatu gisa duen irudia indartzeko, Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Globala kanpo-ekintza estrategiarekin lerrokatuta.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta bere eginkizuna da euskara, euskal kultura eta euskal sorkuntza nazioartean proiektatzea, eta hauen bidez beste eskualde, herrialde eta kulturekin harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzea. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, sortzaileen, artisten eta kultura eta sormen industrietako profesionalen mugikortasuna bultzatzen du, eta euskal ikasketak sustatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko lankidetzak sustatzen du, bai kultura arloan bai unibertsitatearen esparruan.

Deskargatu aldizkaria: <https://labur.eus/sijbjzvb>

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus